



Kaletxikitik abiatu dira auzoetako udako ospakizunak

Egitarau oparoa egin dute Kaletxikin, San Juan jaien lekukoa hartuz. Laster iritsiko dira Karrikako jaiak / 8-9

AIURRI

Xoxokako eskola, auzolanaren fruitua

Mendeurreneko ekitaldia antolatu du Urnietako Udalak Xoxoka-Goiburu auzo elkartearekin batera. Igandean izango da, 11:00tan hasita / 5

Urnietako Txosna Batzordearen agerraldia

Udal gobernu-taldearen jarrera aldatu ezean, aurtengo Sanmieletan planto egiteko prest daudela aldarrikatu dute. Jeltzaleek eta sozialistek ohar bidez erantzun dute. / 6



Itxi dute baserritarren kooperatiba Kaletxiki auzoan, urte luzez zabalik izan eta gero / 7



Uda Giroan zikloaren baitan, Kilikik egitasmo berria aurkeztuko du Andoainen / 11



Gipuzkoako Segia Sail txapelketa berriro irabazteko hautagai da Julen Gabirondo urnietarra / 13

Bideo-sorta zabala Aiurri.eus gunean



AIURRI.EUS
ALBISTEAK, ARGAZKIAK, BIDEOAK, AGENDA

TXOKOTIK ZABALERA

UNAI GAZTELUMENDI ARANDIA MARRAZKILARIA



POSTONTZIA

LAURA BARRIO FOCHEZ ANDOAIN

Zerbitzu publikoaren aldeko makulua

82 urteko andoaindar baten alaba naiz, eta gutun hau SOS mezu bat da, adinekoak zaintzeko zailtasunak dituzten familiena. Udalak etxez etxeko arretarako eskaintzen duen zerbitzua ez da sendoa, eta gabezia horretan eskutik helduta doa zerbitzua kudeatzen duen azpikontratatutako enpresa: enpresako koordinatzailearen ordezkapena etengabea da, baita etxeetara joango diren langileenak ere. Horrek guztiak, ondorioz, zerbitzu prekarioa dakar. Batzuetan, langilea ez da etxera etortzen eta guardia-zerbitzu batera deitu behar izaten da; beste batzuetan, berriz, datozenak ez dira gai zerbitzu zail bati egiteko. Adibide gehiago jar nitzake.

Sentitzen dugun presioaz ez hitz egiteagatik –arreta ukatzeko mehatxuak behin

eta berriz–, langile batzuek beharrezkotzat jotzen dituzten laguntza tekniko batzuk eskatzen ez baditugu. Baina praktikan eskuratzen dira, eta gero ez dira erabiltzen.

Azpikontrataturako enpresak eta Udaleko Gizarte Zerbitzuek ahal dutena egiten dute horretarako bideratzen den aurrekontuarekin. Eta, horren ondorioz, zerbitzuak selektiboak dira eta protokolo orokor eta zalantzagarrietara mugatzen dira. Familia bakoitzaren kasuistika aintzat hartu gabe.

Inoiz esan digute asteburuko zerbitzua jasanezina dela, familiei ez zaielako zerbitzu hori kobratzen. Ez dugu ulertzen, etortzen diren langileei ordaintzen baitzaie. Guk ez diogu uko egiten

ordaintzeari, behar duguna da gu artatzea, ez baita familiek bete genezakeen zerbitzu bat, gure neurriko bat aurkitzea nekeza baita. Zerbitzu horiek enpresa espezializatu batek babesten ez baditu, ez dago horiek aurkitzeko aukera handirik. Badakit zertaz ari naizen egoera hori bizitzen ari garelako.

Espero dut hau ez izatea beste kexa bat, eta ez dadila Udalaren aldetik gure aldeko adierazpen hutsean geratu. Konponbideak bilatu behar dira, eta hurrengo urteko aurrekontu-partidak ez

PLANTEATU
BEHARKO
LITZATEKE
NON INBERTITU
DIRU HORI

gaitzala sumindu, dirua zertan gastatzen den ikusita. Gauza bakarra lortzen dugu modu horretan: egoitzetako itxaron-zerrendak handitzea. Udalak eskaintzen ez digun profesionalen laguntza bilatzea besterik ez zaigu geratzen. Nahi dugu gure aitona-amonek duintasun minimo batekin amai ditzaten beren egunak, beren etxeetan eta familiekin. Herriar gisa, dei egiten diot udalari ikus ditzan benetako beharrianak, eta agian planteatu beharko litzateke non inbertitu diru hori, gure aitona-amonek bizitza laboralean aurreratu dutena amaiera duin bat izateko berme gisa. Ez dezatela izan dezaketena hipotekatu behar, eta ez dezatela sentitu soberan irabazitako zerbaitengatik eskean dabilzanik.

KOMUNITATEA

AITA LARRAMENDI IKASTOLA ANDOAIN



Naroa Asensio Gaston. IKASTOLA

Naroa Asensio, sariketetan garaile

Batxilergoko 2. maila amaitu berri duen Naroa Asensio Gaston ikaslea Urruzuno literatur lehiaketan nahiz Azkue literatur sarietan saritu dute berriki. Orain arte ere, ibilbide oparoa egin du Asensiok literatur sariketetan eta aurrerantzean ere ibilbide arrakastatsua opa diogu. Zorionak eta bejondeizula!

AIURRI

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA

www.aiurri.eus

Aiurri eskuragarri:
Etxez etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 50 eurokoa da. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain. Tel.: 943 300 732. andoain@aiurri.eus www.aiurri.eus

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.
Erredaktoreak: Xabier Lasa, Alba Cabrera Jauregi.
Maketatzailea: Maddi Trutxuelo.
Kudeaketa, harpidetzak: Garbiñe Ugartemendia. idazkaritza@aiurri.eus
Publizitatea: Fer Irazu. publizitatea@aiurri.eus
Banatzaleak: Rocio Arias (Andoain), Axun Jauregi, Jeray Gonzalez (Umieta).
Diseinua: Goiena / TOKIKOM.
Zorion agurrak, merkatu txikia: diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus. Whatsapp-a: 619 163 537.
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.
Inprimategia: Zeroa Multimedia.

AIURRIK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

EKOIZLEA:

ERROITZ

ALJATUAK:

NOSTERRE

TOKIKOM

BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:

ANDOINGO UDALA

Umieta udala

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:

Gipuzkoako Foru Aldundia
Hizkuntza Berdintasunerako Zuzendaritza

BABESLEAK:

Gipuzkoako Foru Aldundia
Gipuzkoako Foru Aldundia

ZIURTAGIRIA:

Bikar

A

FSC

PEFC

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa



PSE-EEko eta EAJ-PNVko zinegotziek osatzen dute Urnietako Udal Gobernu taldea. Ezker-eskuin: Gonzalez (PSE-EE), Frutos (PSE-EE), Artola (EAJ-PNV), Pozas (EAJ-PNV), Segurado (EAJ-PNV), Mercader (EAJ-PNV), Martiarena (EAJ-PNV) eta Ostolaza (EAJ-PNV). UDALA

Balorazio ona egin du koalizioak

Bide erdia eginda, “konpromiso eta ilusio berarekin” lanean jarraituko duela adierazi du Udal gobernu-taldeak, “legegintzaldiko plana garatzeko eta ezarritako helburuak betetzen saiatzeko”

Erredakzioa URNIETA

Ekuatorera iritsi berri da Urnietako Udalaren agintaldia. Hori horrela, bi urteko bideari errepasoa egin asmoz, prentsaurrekoa egin zuen asteazken goizean Udal gobernu-taldeak, udaltxean: igaro berri diren bi urteen balorazio “oso positiboa” egin dute jeltzaleek eta sozialistek. Lehenik eta behin, alkateak hartu zuen hitza, legislaturaren irakurketa orokorra egiteko: “Udalak gobernu sendo eta egonkorra du, bi taldeen arteko sintonia onari esker”. Harekin bat etorri zen PSE-EEren bozeramaile den Hermegonzalez ere: “Osasuntsu dago gobernu-taldea”, azaldu zuen, “herriarrei eskaintzen zaizkien zerbitzuak hobetzeko gauzatutako udal proiektu estrategikoetan islatzen da hori”. Hori horrela, alorrez alor xehetu zituzten beren eskumenetik ondutako egitasmoak. Honatx, horietako batzuk.

Hirigintza

Herriko hiri-antolamenduari erreparatuta, Urnietak “aldaketa nabarmena” bizi duela aipatu zuen gobernu-taldeak. Horren adibide gisa, Lasarte-Oriarantz eraikitako errepide berria ipini zuen Seguradok: “Trafikoa jaitsi da Zabaleta auzoan eta bertakoen nahiz herriaren bizi-kalitatea hobetu da”. Hari horri tiraka, bigarren fasera ailegatu da Zaldundegitik Arantzubiraino doan tartearen bulebarizazioa: proiektuak nahiz pleguak onartu dira. Bada, bide beretik doa Arantzubiko aldapan ipini nahi diren arrapala mekanikoen egitasmoa. Parkeei begira, Berrasoetan komun publikoak jarri dira, eta Postagaingo zein Egapeko parkeak berritu dira. Etorkizunean, begiz jota dute Teresa Amuategi parkea, hori estali eta “haurrek euri-egunetan jolasteko gune bat izan dezaten”.

Etxebizitza

Gobernu-taldearentzat “oso gai garrantzitsua” da, Seguradoren esanetan, etxebizitzaren auzia. Aldatzen ari da Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren (HAPO) aldaketa, etxebizitza berrien eta industrialdeen garapena erraztu eta arintzeko helburuz. Lana burututa, Eusko Jaurlaritzaren oniritziaren zain daude udal agintariak aldaketa egiteko. Era berean, Babiloniako eremua “oso aurreratuta” dagoela gogora ekarri zuen alkateak: eremu horretan, 340 etxebizitza eraikiko dira, eta horietatik % 75 babes ofizialekoak eta tasatuak izango dira.

Aipamenak, sailez sail

Berdintasun eta zeharkako gaien teknikariaren jardunaldia luzatu dela ere iragarri zuen alkateak. Bestalde, herrira iritsi berri diren bizilagun berriekiko ardura erakutsita, “oso ondo funtzionatzen duten” ongi-etorri

saioak antolatzen jarraituko dutela gehitu zuen Gonzalezek “pertsona horiek ahalik eta lasterren eta ondoen integra daitezzen”.

Jasangarritasuna

Urnietaren jasangarritasuna bilatze aldera, Udal gobernu-taldeak “energia garbi eta berdeen aldeko jarrera irmoa” hartu duela adierazi zuen sozialisten buruak agerraldian: “Energia-komunitatea martxan jartzea, ibilgailu elektrikoentzako kargagailuak ipintzea eta gaur egun ibilgailu hibridoak dituzten Udaltzaingoaren bi autoak berritzeak ere helburu hori argi uzten dute. Horrekin lotuta, udalerrri kanpoko argiteria guztia LED sistemara aldatu da, horrek energia-kontsumoa, gutxi gorabehera, % 70 murriztuko duela aurreikusita. Gauza bera egin zen eskubaloiko pista zaharrean, eta lanean ari dira futbol-zelaian eta udal pilotalekuan egiteko”.

Gizarte Zerbitzuak

Hainbat lan ildo ditu irekita gobernu-taldeak esku-hartze sozialaren alorrean, eta horietako bi nabarmendu zituen Consuelo Frutos sozialistak: batetik, nolabaiteko mendekotasuna duten pertsonen laguntzeko iraupen luzeko pisuak martxan jartzea. Zerbitzuak sei apartamentu ditu, Errekalde kalean, eta “azken xehetasunetaraino” zaindu dira. Bestetik, Urnietako zainketen ekosistema berria osatzearen alde egiten ari den lana azpimarratu zuen: “Elkar-laneko eta partekatutako azterlan zorrotz bat egin zen, urnietarrek parte hartu zutena” azaldu zuen, “eta duela gutxi lehen Zainketa Mahaia eratu da”.

Urnietak eta Lasarte-Oria arteko bidegorria

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluak proiektua onartu du

Erredakzioa URNIETA

Gipuzkoako Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluak bart onartu du Lasarte-Oria eta Urnietak lotuko dituen bidegorria eraikitzeko proiektua, Jasangarritasun Departamentuak sustatutakoa. Proiektuak 1.598.402,43 euroko oinarritzko lizitazio-aurrekontua eta 8 hilabeteko gauzatze-epea du.

Aldundiak helarazi duen oharrrak Jose Ignacio Asensio diputatu nagusiorde eta Jasangarritasun diputatuaren adierazpenak jaso ditu: “proiektua onartzeak aukera ematen digu beste urrats bat emateko mugikortasun eredu garbiago, osasungarriago eta konektatuago baterantz. Bidegorri honek bi udalerriri lotzen ditu eta oinezkoentzako eta bizikletentzako mugikortasun aukera berriak irekitzen ditu Buruntzalde eskualdean. Bidegorriari esker, gainera, Plazaolaren ibilbidea berreskuratzen jarraituko dugu, udalerriararte bizikletakorridore gisa, Donostia eta Iruñea lotzen lagunduz eta Gipuzkoako bizikleta-bideen sarea handituz”. Bidegorriaren trazatua 1,2 kilometroko luzeera izango du, eta Azkorte bidearen (Lasarte-Oria) eta Urnietako bide-sarearen artean egingo da.



Urnietako
udala

Xoxokako eskola, auzolanaren fruitua

Mendeurreneko ekitaldia antolatu du Urnietako Udalak Xoxoka-Goiburu auzo elkartearekin batera. Igandean izango da, goizeko 11:00tan hasita: ibilbide historikoa aipatzearekin batera dantzaz, musikaz eta bertsoz osatuko emanaldia egingo dute



Mendeurrena ospatuko dute igande honetan. AIURRI

Erredakzioa URNIETA
Xoxokako eraikin ezaguna auzo eskola izan zen, begirada ehun urte atzera botata. Gerora, ater-

petxe bilakatu zen eta, egun, auzo elkartearen egoitza da. Mende bat atzera eginez, eskolaren irekierak Urnietako auzo handiena

zen Goiburuko biztanleei lasaitasun ederra eman zien. Denborarekin, herrigunerako bideak hobetu ahala, eskola hustutzen

hasi eta itxi zuten arte. Aiurri astekariko hemerrotekara joz, honatx, Joxeba Lizeagak 2008ko ekainaren 27ko data duen artikulua muina.

Xoxokako eskolak alargundu berria zen Aragoiko irakaslea zuen. Bi alabekin Donostiara bizitzera joan zen. Astegunak Urnietan igarotzen zituen, joan-etorriak trenez eginez. Herritik Xoxokako eskolara bide pixka bat zegoen, eta laguntzaile zituen Maritxu Miner eta bere sendia. “Astoarekin gurdian igotzeko”, gogoratzen du Xoxokako eskolako ikasle ohiak. Bera eguerditan joaten zen ikastera, Donostian esnea banatu ostean. “Pare bat urte egin nituen han”, gogoratzen du. Hamaika urtetik hamahirura artean. Hain zuzen, garai hartan ohikoa baitzen eskolara gutxitan joatea: “Zortzi anai-arrebetatik zaharrena naiz eta amari laguntzen gelditu behar”, gaineratzen du. Etxeko lanekin batera, zuten tabernaren kargu ere egin behar izaten zuen. Eskola joateari gaur egungo garrantzirik ere ez zitzaion ematen garai hartan. “Bi egun etxean eta hirugarrengoa joateko gogorik ere ez zen izaten”, gaineratzen du urnietarrak. Etxean jasotako heziketak ordea bai, garrantzia bazuen. Eskolakoak baino askoz gehiago.

Xoxoka eta Ergoien aldeko ikasleak hartzen zituen eskolak.

Baita Andoaingoren bat ere. Sei eta hamalau urte arteko neska-mutilak, denak gela berean biltzen ziren Xoxokako eskolan. “Emakumeak oso zanpatuta ginen. Beste ikuspegi bat zegoen”, adierazi du Minerrek. Jolas garaietan ere bereizketa nabaria omen zen; neskak alde batetik, mutilak bestetik. Atsedean hartzeko tartea hartuta, berriz, ikasgelara. Mahai borobil batean esertzen zen irakaslea. Binakako garai hartako ikasmahaitan ikasleak. Bertan, lumarekin idazteko tinta izaten zuten, “litro bat aste osorako. Harekin moldatu behar”, gogoratzen du ikasle ohiak. Pizarra bat ere izaten zuten, baita blok bat eta kaligrafia ikasteko bi lerrodun koadernoak ere. Ikasketak gaiak berriz, aritmetika, geografia, matematika eta historia. “Guztia erdaraz, noski”, adierazi du. Eta animalien izenak, ibaiak edota aditzak zirela, ikasitakoa buruz, ulertu eta barneratu gabe. “Loro baten moduan, buruz esan behar”, adierazi du.

Aipatzekoa da bestalde, gurasoen elkarlana, negu gorrian, eskolan berogailurik ez eta sua egiteko egurra falta zenean. Gurasoen zereginetako bat zen. Baita behar zuenean, maisua laguntzea ere. Hain zuzen, lan egunetan Urnietan bizi zen, barrik, eta zerbait behar zuenerako auzokoak zituen, laguntzeko prest.

Doña Pepita Xoxokan (1962)



Iturria: Urnietako Erretratu zaharrak liburua.



- | | |
|------------------------------------|-------------------------------------|
| 1. Aiestaran, Lurdes. | 14. Izeta Pagola, Rosarito. |
| 2. Usarralde Esnal, M. Karmen. | 15. Elozegi Toledotxiki, M. Josefa. |
| 3. Ubillos Iturralde, Begoña. | 16. Lasarte Garmendia, M. Jesus. |
| 4. Olaziregi Juangorena, M. Pilar. | 17. Lasarte Garmendia, Inma. |
| 5. Lasarte Garmendia, Arantza. | 18. Esnal Pellejero, Maritxu. |
| 6. Campos Martin, Pepita. | 19. Txapartegi Izeta, Rosa M. |
| 7. Urkola Rekalde, Arantxa. | 20. Usarralde Esnal, Arantxa. |
| 8. Lasarte Garmendia, M. Karmen. | 21. Usarralde Esnal, Margari. |
| 9. Miner Irastortza, M. Kruz. | 22. Izagirre Zabala, M. Kontxi. |
| 10. Izagirre Zabala, Maritxu. | 23. Lasarte Garmendia, Koro. |
| 11. Txapartegi Izeta, Dominika. | 24. Jauregi Lizarribar, Kontxi. |
| 12. Elozegi Toledotxiki, M. Koro. | 25. Aiestaran, M. Jesus. |
| 13. Loitegi, Lurdes. | 26. Jauregi Lizarribar, Ixiar. |



Urnietako Txosna Batzordeak agerraldia egin zuen astearte arratsaldean. AIURRI

Txosnagunea, kolokan

Uda aurrera doa eta Sanmielak geroz eta gertuago daude. Urnietako Txosna Batzordeak agerraldia deitu zuen aste honetan beren kezka herritarrekin partekatzeko: Udal gobernu-taldearen jarrera aldatu ezean, planto egiteko prest daude

Erredakzioa URNIETA

Uda sasoia amaitzearekin batera iristen dira Urnietara festa nagusiak. Ospakizunak hartzen du herria irailaren amaiera aldean, Mielaren etorrerarekin batera.

Hori horrela, buru-belarri egiten dute lan urte osoan herriko askotariko eragileek, adin eta gustu guztiei begirako egitaraua josteko asmoz. Alabaina, kalera atera ziren joan den astearte

arratsaldean urnietarrak, herriko Txosna Batzordeak deituta, "Urnietako txosnak, arriskuan" lemapean. Txosnaren bueltan biltzen den eragileen ordezkari-tza zabala izan zuen Plazido

Muxika plazan egindako agerraldiak, Sanmielei begira, Udal gobernu-taldearekin izaten ari diren harreman gatazkatsua salatzeke xedez: "Udal gobernuaren esku dago, ez bada egoera aldatzen Txosna Batzordeak ez ditu festak antolatuko". Mobilizazioan aipatu bezala, orain bi urte, 2023. urtean sortu zen batzordea, herriko askotariko eragileen elkarbizitzaren alde, txosnagunearen kudeaketa artikulatuago bat eraikitzeke asmoz, "lehen zegoen gabezia gaindituz eta txosnagune justu eta eraginkorrago bat sustatuz". Hori horrela, eragileek

aipatu dutenez, 2024. urteko irail-lean, "Txosna Batzordea kontuan hartu gabe, beren jardunarekin zerikusia zuen ordenantza berria atera zuen Urnietako Udalak: "Bertan, txosnagunearen gaineko kontrola hartzen dute, besteak beste, isun ekonomikoak ezarri, adierazpen askatasuna mugatuz edota kokalekua eta eragile kopuru maximoa erabakiz".

Bide horretan, urtea hastearekin batera ekin zion Txosna Batzordeak aurtengo Sanmielak antolatzeari. Nolanahi ere, isiltasuna izan da, batzordeak agerian jarri duenez, Udal gobernu-taldearekin elkarriketa-bidea irekitzen ahalegintzean jaso duen erantzuna: araudi berriaren gaineko eztabaida, txosnen irekiera egunen zehaztapena, aurrekontua... "Horrez gain, Udal gobernuak aukeratu du txosna nork jarri eta nork ez, beraien irizpideen arabera. Horrela, Txosna Batzordearen parte diren eragile batzuk kanpoan utzi ditu". Horren aurrean postura garbia dutela aldarrikatu zuten eragileek: "Txosna Batzordea da txosnagunea kudeatzeko dagoen talde zilegi bakarra. Hau osatzen duten eragileak dira urte osoko lana aurrera eramaten dutenak eta ez dugu onartuko inork gure jarduna zapuzterik". Horrenbestez, Sanmieletan herriko txosnagunea arriskuan dagoela salatu zuten prentsaurrekoan: "Urnietako txosnak arriskuan daude, baina guk argi dugu: herritik eta herriarentzat izan behar dira".

Urnietako Udalaren erantzuna

"Urnietako Udaleko Kultura Sailetik herritarrekin partekatu nahi dugu 2023tik San Miel jaien antolaketa hobetzeko egiten ari garen lana, txosnaguneako espazioari arreta berezia eskainiz. Ahalegin hori jaien dinamizazioan parte hartzen duten eragile guztien artean komunikazio arinagoa eta koordinazio eraginkorragoa sustatzeko borondateak sortu da, horiek baitira gure komunitate-bizitzaren funtsezko zutabeak. Helburu horrekin, foro irekiak ezarri dira Jai Batzordearen barruan, interesa duten elkarte guztiek modu aktiboan parte har dezaten. Elkarriketa-gune horiek bitan banatu dira: bata txosnagunearen kudeaketan zentratua (postuak, logistika, programazioa) eta bestea programazio orokorrari eskainia, non txosnagunean parte hartzen dutenak ere parte hartzen duten. Egitura honen helburua ahots guztiak entzunak izatea eta erabakiak

adostasunez hartzea da. Joan den maiatzaren 14an Jai Batzorde bat egin genuen, bi deialdirekin. Lehenengoan, aurtengo txosnagunea erabiltzeko baldintza espezifikoak azaldu ziren. UKE eskubaloia, Mugimendu Sozialista eta Jarduneko ordezkariak bertaratu ziren. Bileran, espazioaren irekitze egunak, horiek definitzeko erabilitako irizpideak eta postuen kudeaketarako eskaera datak zehaztu ziren, eta jarrerak argi geratu ziren. Aurtengo txosnak eskatzeko data aurreratu egin da, aurreko urteko San Miel jaietako ebaluazioan Txosna Batzordeko kide batzuk hala eskatuta. Iaztik aundi berria dugu txosnagunerako. Aldez aurretik Jai Batzordean aurkeztu zen, inplikaturako elkartei bidali zitzaizen eta jendaurrean jarri zen 30 egunez, 2024ko uztailaren 5etik aurrera. Prozesu horretan ez zen aldaketa-proposamenik edo iruzkinik

jaso, eta hori araudiaren onarpen orokor gisa interpretatzen dugu.

Araudi horren helburua espazio publikoaren erabilera antolatzea eta arautzea da, parte hartzeko eskubidea, bizikidetzak, aniztasuna eta segurtasuna bermatuz. Araudiak Urnietan egoitza duten elkarteak lehenesten ditu, udalerrian kultura-, gizarte- edo kirol-jarduerak garatzen dituztenak; izan ere, txosnagunea funts publikoekin diruz lagundutako gunea da eta tokiko komunitatearen onurarako erabili behar da. Udalak espazio honekin duen konpromisoa, hitzetan ez ezik, ekintza zehatzetan ere islatzen da. 2024an, 27.665,48 euro bideratu ziren txosnagunera, zenbait elkarteri gune horretako jarduerak espezifikotarako ematen zaizkien dirulaguntza gehigarriak kontuan hartu gabe. Aurrekontu horrek honako hauek barne hartzen ditu: kontzertuak, eszenatokia, ekipamendu- eta pertsonal-teknikoak, soinu- eta argiztapen-zerbitzuak, komunak,

altzariak (mahiak, aulkiak eta karpak), instalazio elektrikoak, energia-kontsumoa eta larrialdien aurreko arreta. Horrek guztiak erakusten du kultura sailak garrantzi handia ematen diola bai espazio horri bai hura dinamizatzen duten eragileei.

Kultura Sailetik elkarriketarako jarrera irekia izan dugu beti. Udal teknikariak prest egon dira zalantzak argitzeko, gorabehera logistikoei erantzuteko eta agenteei proposamenetan laguntzeko. Komunikazio hori indartzeko lanean jarraituko dugu, arazoak elkarriketarako jarrera onarekin konpontzen direla sinetsita. Gure helburua argia da: San Miel jaiak topaleku, ospakizun eta herritarren partaidetzarako gune izaten jarrai dezatela, elkarte guztiek ekarpenak egin ditzaten eta ordezkaturak senti daitezen. Biziki eskertzen dugu inplikaturako eragile guztien lana, eta kudeaketa gardena, parte-hartzailea eta Urnietako herriaren zerbitzura dagoena egiteko konpromisoa berresten dugu".



Jabier Oiartzabal Leizotzeko nekazaria eta azken bederatzit urtetan salmentan aritu den Nerea Garmendia urnietarra. AIURRI

Itxi dute Kooperatiba

Astelehenean itxi zituen ateak betiko Andoaingo Nekazarien Kooperatibak. Zuzendaritzako ordezkarien esanetan, gogorra egin zaie erabakia hartu behar izana, baina ez dute beste erremediorik eduki, ez zelako ekonomikoki bideragarria

Xabier Lasa ANDOAIN

Zuzendariko kideek adierazi dutenez, “Andoaingo kooperatibak, bere historian, baserriarren unean uneko premietara egokitzen jakin izan du. Baina azken urtetan, penaz, izugarri joan da murrizten baserri-mun-

dua, eta kooperatibaren bezero-kopurua ere maila berean joan da gutxitzen”. Gehitu dutenez, azken saiakerak egin dituzte azken aldian, inguruko beste kooperatibekin elkarlanean jarduteko, baina ezinezkoa izan zaie hortik jotzea. Bideragarri-

tasun eza kontuan hartuta, bazkideek, orain aste batzuk egin zuten batzarrean, kooperatiba bizirik mantentzen zuen elkar-tea desegitea erabaki zuten.

Horrenbestez, kooperatibaren ibilbidea amaitutzat emanik, honetaz aurrera zorrak kitatu,

lokala saldu, eta enpresaren likidazio prozesua jarriko dela abian, gehitu dute.

Andoaingo kooperatibaren itxiera, Gipuzkoan sektore horrek azken urtetan bizi duen panoramaren islada besterik ez da. Joera hori antzematen da inguruan martxan izan diren kooperatiba batzuekin. Oiartzungoa izan liteke azken adibidea.

Ibilbide historiko handiko Kooperatiba

Ezin izan da topatu zenbait xehetasun (noiz, nortzuk...) zehaztuko lizkigukeen agiririk, baina jakina da Andoaingo baserriarren kolektiboko zenbait eragileek XX. mendeko lehen herenean jarri zuela abian.

Nekazaritzari lotutako kooperatibismoaren filosofiari heldu zioten, helburu jakinekin: herriko baserriarren topagune izatea eta beren interesak defendatzeko tresna izatea, nekazaritzatik bizi ziren baserri-familiei zerbitzua eskaintzea, nekazaritzako produktuak eta generoa merkeago jartzea salgai... Dena esatera, nahiz lehen sektorerako bideratutako zerbitzua izan, Andoaingo biztanleri osoari ireki izan dizkio ateak kooperatibak, betidanik.

Bere eboluzio historikoan izen desberdinak hartu izan ditu. Cooperatiba Catolica Agricola (Nekazari-Kooperatiba Katolikoa) izena ofizial eduki zuen epe historiko luze batean behintzat, eta 80ko hamarkadan barrena izen aldaketa ezarri zioten, egundaino ezagutu den Nekazari Kooperatiba, alegia.

Nerea Garmendia urnietarra egon da azken bederatzit urtetan salmentan. Aurretik, Pili Zeberriok eraman zuen bere hango

martxa, 25 urtez; hark, Jose Antonio Salaberriak eta Kristina Ansak osatzen zuten bikoteari hartu zion lekukoa. Hamarkadetan oraindik atzerago eginda, berriz, Kaletxikin bertan bizi zen Garmendia familiaren kargu egon zen kooperatiba; Joxe Manuel Garmendia Unanueren eskuetan lehenbizi, eta haren emazte Pantxika Garmendia Urkola eta bien seme Bixente Garmendiaren esku ondorenean, hain zuzen. Garai hartan, errota bat ere bazeukaten martxan bertan.

Jabier Oiartzabal bezero finotako bat izan da urtetan. Arizmendi Etxeberriko baserri-tarra, Andoaingo Makaldegiko merkatuan baserriko produktuekin saltokia daukan bakanetakoa da. “Pena izugarria eman digu Kooperatibaren itxierak. Eskura eduki dugu orain arte, eta zerbitzu galanta eman digu, baina ulertzekoa da azken erabaki hori. Bistan da gainbehera doala baserri mundua; ezkutatzaera doa orain arte ezagutu dugun bizimodu tradizional hori behintzat, eta horrek bere eragina dauka kooperatibaren antzeko zerbitzuetan, jakina”.

Baserri-giroko produktuen salmentari orain hamarkada batzuk ekin zionetik gaurdaino, gauzak izugarri aldatu direla aitortu du Oiartzabal: “Ni hasi nintzenean, Andoaingo baserri gehienek, gutxi-asko, mantentzen zuten baserri-produkzioa. Egin kontu, herrian janari-denda txiki ugari izaten zen, eta horiekin izaten zuten irtenbidea; eta gero aparte, esnea partitza herrira goizero jaisten zirenak. Egun, esango nuke Muñagorriko familia dela bakarra baserritik bizi dena”.



Kooperatiba zabalik, aurreko astean, behin betiko itxi aurretik. AIURRI



Kooperatibako hainbat kide, artxiboko irudian, San Isidro egunez Txertotan ateratako argazkian. AIURRI



Soka-dantza, igande eguerdian. Tradizio handiko ekitaldia da Kaletxikiko jaietan. AIURRI

Sekulako giroa Kaletxikiko jaietan

Goi mailako bertso-saioa egitarau oparoaren atariko bilakatu zen. Kandidarekin hasi eta amaitu ziren jaiak, auzotarren arteko giro ona sendotzeko baliagarria izan dena. Jaiei argazki-bilduma eta bideo sorta zabala ikusgai daude Aiurri.eus gunean, atal berezian

Erredakzioa ANDOAIN

Kaletxikiko jaiak amaitu berri-tan, Aiurri astekariak Jai Batzor-dean buru-belarri dabil-tzan lehen balorazioa jaso du. Pozarren daude, antolatzaile eta auzotar modura. Eta, ezer baino lehen, auzoak bizi duen armonia nabarmendu dute: "Nabarmen-tzekoa da auzoan sortu zen giroa jaiak iraun zuten lau egunetan". Izan ere, ostegunean abiatu ziren jaiak Berrozpeko kaperan mai-la handiko bertso-saioarekin. Biharamunean, Kandida eta Tolosako Popeye txarangarekin jai-giroa auzo osora barreiatu zen. Kaletxikira jaitsi aurretik udal ordezkari-tza zabala zain

zuten Kontzejupean. Ostiral gaua Txapela Bravak girotu zuen, tex-mex eta rantxera doinuekin. Jaietako lehen sorpresa lehen-xeago iritsi zen, Lebi zezensuz-koak agerraldia egin baitzuen Berrozpeko jolastokian. Goza-mena izan zen bertan ziren haur, gaztetxo eta familientzat.

Sagardo txapelketa izan zen larunbat eguerdian eta, ohi be-zala, jendetza hurbildu zen au-zunera. Arratsaldean danborra-daren txanda izan zen eta tal-dekideetako batek aukera ba-liatu zuen bikotekideari ezkon-tza-proposamena luzatzeko. Ikurriña zeraman neskak ezus-teko galanta jaso zuen, eta baiez-

koa eman zion. Bertan ziren, lekuko gisa, Sestaotik etorrri-tako gurasoak. Danborrada San Juan Bataiatzailea adinekoen egoitzaraino iritsi zen. Ama Kandidari ere pare bat pieza eskaini zizkieten Berrozpeko kaperan. Gauean, sekulako gi-roa jarri zuten, ohi bezala, Ne-mux DJek. Igandean, soka-dan-tzaren ostean, lehen paella-txa-pelketa antolatu zuten. Juanma eta Aitor Garcia aita-semeak izan ziren irabazleak. Arratsal-dean izan zen egitarautik kan-poko bigarren hitzordua: apar-festa. Sardin-jatearekin amaie-ra eman zioten ekitaldiz bete-riko asteburuari.



Sarasolak eta auzoko mojek Jai Batzor-dearen omenaldia jaso zuten. JAI BATZORDEA



Juanma eta Aitor Garcia aita-semeak, lehen paella txapelketako irabazleak. JAI BATZORDEA



Kandida eta Txikitxuak, Jai Batzordeko kideekin, Popeye txarangarko kideekin eta Udal ordezkariekin batera. AIURRI



Lebi zezensuzkoa, ostiral gauean, Berrozpeko jolastokian. JAI BATZORDEA



Eskupilota txapelketan parte hartu zuten kirolariak, gurasoez eta Gaztelekuko kideez lagunduta. AIURRI



Danborradako hainbat kide, larunbat arratsaldean, Goikoplazan. AIURRI



Berto saioa Berrozpeko kaperan egin zuten aurreko ostegunean. AIURRI



Mark Arregi eta Liam Manley, erakusketaren talde eragileko bi kide. AIURRI

Historian isilarazitako errealitatea, bistara

Kuir erakusketa zabaldu zuten Juanita Alkain plazan joan den larunbatean, LGTBQA+ Kolektiboaren Sexu Askapenaren eta Harrotasunaren nazioarteko egunarekin bat eginez

Xabier Lasa ANDOAIN

Kuir proiektua bultzatzen duen taldeak antolatu zuen erakusketak, Udaleko Berdintasun sailaren laguntzarekin. Erakusketa goiz eta arratsaldean egon zen ikusgai, eta bertaratutako zirenek talde horretako Sara Zozaya, Jon Sierra, Lore Atondo, Mark Arregi eta Liam Manley kideen azalpenak jaso ahal izan zituzten. Aldi berean, bi bisitaldi gidatu ere antolatu zituzten. Kuir, herriz herri dabilen erakusketa da, eta

LGBTQA+ kolektibo horren historiak eta borrokak azaltzen dituen espazio bisual gisa planteatuta dago. LGTBQA+ pertsonen historia, kultura eta errealitate soziala esploratzen ditu, artea eta inklusioa sustatuz. Eragileen hitzetan, “erakusketak berdintasunaren eta errespetuaren gaineko gogoeta eta ikaskuntza sustatzeko espazio bat sortu nahi du”.

Erakusketako edukiek nabarmentzen dute denboran zehar,

historia perspektiba normatibo idatzi eta interpretatu izan direla, “genero eta sexualitatearen kanon tradizioaletan sartzen ez diren identitateak eta harremanak isilaraziz, aztertuz edo moldatzeko berrinterpretatuz”.

Horrela, azpimarratzen da heterossexualitate edo genero-binariorik urrutiz ziren esperientziak eta loturak “ez ikustaraziak, gutxietsiak edo distorsionatuak” izan direla iraganaren ikuspegi mugatu eta baztertzailetik. “Hala



Bi bisitaldi gidatu egin zituzten erakusketan barrena. BERDINTASUN SAILA

ere, literatura zaharretako kontakizunak eta arkeologia-aurrikuntzak sakonkiago aztertzen ditugun heinean, argi gartzen da LGTBQA+ pertsonak betidanik existitu eta giza gizartearen parte funtsezkoa izan direla gure historiaren lehen erregistroetatik”.

Gonbidapena, adibide historikoen eskutik

Erakusketak ikuslea gonbidatzen du “identitate queer-ak zerbait berria direla dioen kontzeptu oker hori desmitifikatzera”, eta aldi berean, “ulertzea LGTBQA+ pertsonak beti egon direla historian presente, nahiz eta ez zaigun beti liburu historikoetan aitortu”.

Historian barrena zenbait erreferentzia (pertsonak, pertsonaiak, gertakizunak...) ekartzen ditu gogora erakusketak, zabaldu nahi den mezua horren adierazgarri gisa. Tartean, Antzinako Mesopotamiako mitologiako Gilgamesh eta Enkidu pertsonaiak, Greziako mitologiako Zeus eta Kalisto), Paleolito Goienako La Marche kobazuloko grabatuak (duela 14.000 urte ingurukoak), Irango Hasanluko hilobia (duela 2.800 urtekoa), Antzinako Egiptoko

Khnumhotep eta Niankhkhnum V. Dinastiako funtzionarioak (duela 2.400 urte), II. Mundu Gerra, 1981eko IHEsaren gaineko lehen diagnostia...

Udalaren adierazpen instituzionala

Udala osatzen duten lau alderdiek adierazpen instituzionala onetsi zuten, ekainaren 28an, LGTBQA+ harrotasunaren egunarekin bat eginda. Besteak beste, aniztasunetik eskubide eta bizikidetzaren aldeko konpromisoa berresten dute eta kolektibo horren eskubide eta askatasunaren aitortza lortutako aurrerapenak goraipatzen dituzte. Nolanahi ere, eta zehazten dutenez, “egun hau ez da ospakizuna bakarrik, egindako bidea eta oraindik benetako berdintasuna lortzeko egin behar den lana gogoraraztea ere bada”. Besteak beste, funtsezkoa ikusten dute “injustiziaren aurrean aho-tsa altxatzea eta gizarte bidezkoagoa, inklusiboagoa eta aniztasuna errespetatzen duena eraikitzen laguntzea. Ekintza kolektiboaren bidez bakarrik egin ahal izango dugu aurrera aldaketa erreal, sakon eta iraunkor baterantz, norbanakoaren konpromisotik hasi eta politika publikoetarako”.

Tokiko enpresa-sareari bideratutako laguntza lerroa

Modernizazioa, ekintzailatza eta tokiko enplegua sustatzea helburu du Andoaingo Udalak

Erredakzioa ANDOAIN

Deialdiak bost jardura-ildo ditu eta gehienez ere 10.000 euroko laguntza jasoko du eskatzaile bakoitzak. Eskabideak aurkezteko epea 2025eko urriaren 31n amaituko da.

Informazio gehiago lortzeko edo laguntza zerbitzuarekin hitzordua hitzartzeko, interesdunek Andoaingo Udalen web-gune ofizialera jo dezakete (andoain.eus) edo Sustapen Ekonomikoko lantzaileekin harremanetan jarri (943 304 221; tokigarapena@andoain.eus).

netan jarri (943 304 221; tokigarapena@andoain.eus).

1. Negozio berriak sortzen laguntzea.
2. Merkataritza-guneak alokatzeko laguntzak, lan-guneetara sarbidea errazteko.
3. Digitalizazioarako dirulaguntzak.
4. Irigarritasuna sustatzea, sarbide unibertsala bermatuz.
5. Energia-trantsizioarako laguntza, eraginkortasuna eta ingurumen-iraunkortasuna bermatzera bideratuta.



Asteartean egin zuten aurkezpen-ekitaldia. UDALA



Barricada taldearen kantuekin erreperetoria osatu du Barrena musika taldeak. BARRENA

Musika eta antzerki egitarau interesgarria

Zinema, musika, zirkua... Askotariko hitzorduak Andoaingo auzuneetan barreatua: Halaxe dator aurtengo Uda Giroa zikloa. Chill Mafiako kide Kiliki Frexkoren musika egitasmo berriena da programazio osotik nabarmentzen den hitzordua

Jon Ander Ubeda AIURRI
Nafarroan sorturiko atzoko eta gaurko musika proposamenak nabarmentzen dira aurtengo Uda Giroan zikloan. Barricada taldea askoren gogoan iltzaturik dago eta oraindik ere askotxok gogoan dute El Drogasek Nafarroa plazan egin zuen kontzertu gogoangarria. Barricadaren 40 urteak gogora ekarri zituen bira hartan eta ehunka ikusle kantuan jartzea lortu zuen. Bada, ez da berdina baina geroz eta gehiago dira bertsio taldeak eta horietako bat da Barrena izenekoak. Barricadaren erreperetorio ezagunena taularatu ohi dute eta hilabete honetan bertan Karrika auzunean izango dira. Zehazki, uztailaren 11n, gaueko 22:30ean hasita.

Kiliki, uztailaren 31n
Chill Mafiarekin ezagutu genuen Beñat Rodrigo García "Kiliki Frexko" iruindarra. 2021ean, Xabier Leteren "Gizon arruntaren koplak" kantuen bertsioarekin ezagun egin ziren eta lau

urteko epealdian sekulako arrakasta lortu zuten. Taldearen agurraren ostean dator Kiliki Frexkoren bakarkako lehen lana, "Itze 1" izenekoak. Zazpi kantuz

osaturikoa da eta andoaindarren aurrean San Inazio egunez igoko da oholtza gainera. Uda Giroan zikloak ekitaldi gehiago jaso ditu bere barnean.



Kiliki kantaria, Chill Mafiako kide ohia. KILIKI

UDA GIROAN

UZTAILAK 11

OSTIRALA

22:30 Kontzertua: Barrena. Barricadaren bertsioak Karrikako jaietan entzungo dira.

UZTAILAK 18

OSTIRALA

19:30 Antzerkia: "La ultima, y nos vamos", Trapu Zaharra konpainiaren kale-antzerkia Zumea plazan.

UZTAILAK 19

LARUNBATA

20:00 Antzerkia: "Plaza", La Pez konpainiaren antzezlan Goikoplazan.

UZTAILAK 20

IGANDEA

12:30 Antzerkia: "Andante", Markeliñe konpainiaren kale antzerkia. Maskaradun antzerkia. Ibilbidea: Zumea kalea, Kale Nagusia, Plaza Morea.

UZTAILAK 26

LARUNBATA

09:30-21:00 3x3 saski txapelketa mistoa, Zurrut taldeak antolatuta. Bi mailatan jokatu da: juniorrak (15-17) eta seniorrak (18tik gora).

UZTAILAK 31

OSTEGUNA

20:00 Kiliki "Itze 1" disko berria aurkeztuko du Etxeberrietan plazan. Chill Mafiako kideetakoak ibilbide berriari ekin dio.

KARRIKAKO JAIK



Uztailaren 11n hasiko dira jaiak. AIURRI

UZTAILAK 11

OSTIRALA

19:00 Txupinazoa.
20:30 Bokata afaria.
22:30 Kontzertua: Barrena.

UZTAILAK 12

LARUNBATA

11:30 Puzgarriak eta apar festa.
14:00 Makarroiak eta bingoa.
16:30 Puzgarriak.
18:30 Dantza tailerra.
22:00 Kontzertua: Versos Perdidos.
00:30 DJ Donoso.

UZTAILAK 13

IGANDEA

11:30 Meza Sorabillan.
12:00 Toka txapelketa.
12:30 Sagardo dastaketa.
16:00 Karrikako mus txapelketa.
19:00 Got Talent Karrika.
19:45 Play back saioa.
21:00 DJ Donoso.
23:30 Amaierako traka.

"Konstantzia handia behar da prestaketa saioetan"

EIDER CEA GIMNASTA

Buru-belarri dabil sartuta Eider Cea urnietarra gimnastika erritmikoko tapizean. Denboraldiari Oskarbi taldearekin ekin arren, Belabieta klubarekin dabil orain

Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Ondo baino hobeto ezagutzen ditu Eider Cea urnietarrak gimnastika erritmikoko tapizaren lau ertzak. Bost urte besterik ez zituela murgildu zen kirol-jarduera horretan eta hamabost urteko ibilbidearen ostean, Ibarrako Belabieta taldean dabil, Espainia mailan, taldekako lehiaketetan sartuta. Harreman estua du, era berean, etxeko klubarekin, Oskarbiarekin, entrenatzaile-jardunean baitabil. **Zapore gozoz amaitu zenuen joan den urteko denboraldia, Gipuzkoako eta Euskadiko gimnastika erritmikoko txapelketak irabazita. Nolako izan da aurtengoa?**

Andoaingo Oskarbiarekin hasi nintzen, irailean, abendura bitarte. Denboraldi berria prestatzen hasi ginen, dantzak sortzen. Txapelketa irabazita, kategoriaz igo nintzen, hortaz, koreografiak hobeto prestatzeko eta egiteko ahaleginean nintzen. Urte amaieran, federatuen talde batera sartzeko aukera eduki nuen, Ibarrako Belabieta klubean. Proba egin nuen eta hantxe nabil, oso gustura.

Zer moduz lur hartu duzu talde berrian? Behin federatuta, zertan nabari duzu jauzia?

Gogo handiarekin jaso nuen albistea, polita baita esperientzia. Ezberdina da giroa, exigenteagoa. Finean, handiagoa da maila eta gauza gehiago eskatzen dira. Espainia mailan lehiatzen gara



Eider Cea, txapelketa batean. EIDER CEA

federatuta gaudenak eta entrenamendu ordu gehiago egiten ditugu. Jubenil mailan nabil; sei kide izan gara aurten. Gure kasuan, 18-21 urte ingurukoak gara. **Espainiako txapelketen zirkuituan sartu zara. Plaza eta lehiakide berriak ezagutzeko aukera eman dizu horrek.**

Orain beste klub batzuen aurka nabil lehian eta nire taldeko batzuk ere ez nituen ezagutzen. Granadan izan zen Espainiako txapelketa, baina, bestela, hemendik gertu aritzen gara. Egoiten dira lehiaketak, Madrilen-eta, baina, oraingoz, ez dut halakorik egin. Taldeei begira, Espainia mailan, lehen postua eskuratu zuten donostiarrek, beraz, lehiakide zailak dira.

Zenbat denbora eskaintzen diozu gimnastika erritmikoari astean?

Astero, entrenatzaile gisa ematen ditudan lau orduz gain, hiru egunez, hiru orduko entrenamenduak egiten ditugu: astelehenak eta asteazkenak, arratsalde eta larunbatak, goizez. Antzeko martxa dugu horietan: beroketa, fisikoa, koreografiak muntatu edo gauza berriak probatu... Azken hori denboraldiaren momentuaren arabera izaten da. Dantzei dagokionez, zenbat eta nagusiagoa izan, orduan eta askatasun handiagoa daukagu sortzeko. Gutako batzuk entrenatzaileak dira, gainera, eta gai gara koreografiari ekarpenak egiteko.

Indarra eta era berean elastikotasuna. Badira gimnasia erritmikoaren bi bereizgarri. Nola prestatu gorputza horren mugimendu exigenteen aurrean?

Urteak daramatzagu elastikotasuna lantzen, orduan, hori ez da galtzen, baina konstantzia handia behar da prestaketa saioetan. Bestela, ez dugu aparteko dieta zorrotzik, nahiz eta mesedegarria den zaintzea, baita atseden hartzea ere.

Era berean, nola entrenatu burua? Perfekzioa bilatzeko bideak berak estresa edo tentsioa sor baitzeko. Pertsonaren arabera izan ohi da hori, bakoitzari modu batera edo bestera eragiten diolako. Gure kasuan, taldean lehiatzen garenez, elkarri laguntzen diogu. Esaterako, arnasketak egiten ditugu, atera aurretik, txapelketetan.

Lesioen prebentzioa nola lantzen duzue? Zein neurri hartzen dituzue gorputza babesteko?

Bai, baina, beno, ez daukagu denbora soberan. Entrenamen-

du amaieran, luzapenak egiten ditugu, eta horrek laguntzen du.

Nola uztartzen dituzu gimnastika erritmikoa eta zure gainerako egunerokoa?

Ahal bezala egiten dugu eta lehentasunak ipini behar ditugu. Adibidez, unibertsitatean nabil antropologia ikasten. Bada, zeregina eguneratuta izaten ahalegintzen naiz. Eguneroko beste arduretan konstantzia edukitzen erakutsi dit gimnastika erritmikoak.

Gimnastika erritmikoan aritu ez ezik, irakatsi ere egiten duzu, Urnietan, Oskarbi taldean. Zer moduzko denboraldia izan da taldearentzat?

Duela hiru urtetik nabil entrenatzaile-lanetan. Aurten, zazpi urtetik hamaika urte bitarteko ia 30 haurrekin aritu naiz. Oso ondo joan da denboraldia, gustura etortzen dira umeak. Gainera, bakarrik aritu naiz entrenatzaile moduan, lehen aldiz. **Erakustaldi jendetsua egin zenuten ikasturte amaieran. Osasuntsu ikusten al duzu gimnastika erritmikoa bailaran?** Zirrara eragiten dute ikuskizunek, publikoaren artean. Andoainen egin ohi dugu erakustaldi nagusia, baina, Urnietan gertukoentzat zein senideentzat ere ikuskizuna izaten da eta jende asko gerturatzen da.

Bost urterekin ekin zenion zuk gimnastika erritmikoari. Dezente aldatu zara harrezkero. Zertan aldatu da Oskarbi?

Andoainen hasi nintzen ni, ez baitzegoen talderik Urnietan. Ziklo olinpikoek eragina dute araudian, hau da, asko aldatzen da ariketa bera, lege horien arabera. Dena dela, oinarriak berak antzeko jarraitzen du.

Uda-sasoia ailegatzearekin batera iristen al da zuretzat atseden hartzeko unea?

Orain, betiko martxarekin gabilta entrenatzen. Abuztuan, atseden hartuko dugu. Oskarbin umeen kasuan, ikasturteka egiten dute, eskola-agendarekin bat.

Datorren denboraldiari begira zaudete honezkero. Zein erronka dituzue aurretik?

Oskarbin beste adin batzuetako talde gehiago lehia daitezen nahi dugu eta horretan ahaleginduko gara. Belabietan, Espainiako txapelketari begira gaude: azaroan daukagu eta ondo prestatzeko lanean izango gara.



Ikastaro ugari dago aukeran. UDALA

Kirol- eta osasun-ikastaroetan izena emateko epea zabalik da

Uztailaren 20ra arte egongo da aukera izena emateko, Urnietako kiroldegian bertan

Erredakzioa URNIETA

Ekainaren 30ean zabaldu zen kirol- eta osasun-ikastaroetan izena emateko epea. Ikasturtea datorren irailaren 15ean hasiko da eta bukatu, berriz, 2026ko ekainaren 19an. Ikastaro bakoi-terako ezarritako prezioa % 20 murriztuko da Urnietan erroldatutako pertsonen kasuan baldin eta ondorengo baldintzaren bat betetzen badute: Familia ugaria edo guraso bakarrekoak, 21 urtetik beherakoak, 65 urte-tik gorakoak, langabeak, pen-tsiodunak, ikasleak eta Gazte txartela dutenak.

Eskaintza

Honako hau da 2025-2026 ikas-turterako eskaintza:

- Spinning.
- Bodyzumba.
- Total Training.
- Tonifikazioa.
- Hirugarren adina.
- Aholkularitza gimnasioa.
- Pilates.
- Gimnasia Funtzionala.
- Bodypump.
- Combo Bodypump + Spinning.
- GAP + Hipopresiboak.
- Stretching.
- Gazte Training (16 urtetik beherakoentzat).



MATEO PONCE

Txapeldun-orde, palan

Andoaingo pala jokalariek ezin izan zuten Astigarraga menderatu, Errenteriako Agustina Otaola frontoian jokatu zen Gipuzkoako Herriarteko gomazko paletako finalean. Dotore aritu ziren Gaztelekuko pilotariak eta Andoainetik joandako zaletu ugariaren babesa eduki zuten. Aurkaria, ordea, gogorra zen. 2-1 izan zen azken emaitza, Astigarragaren alde.



Julen Gabirondo. AIURRI

Gipuzkoako Sega Sail txapelketa, igandea Zizurkilen

Julen Gabirondo urnietarra, Jon Larrañaga eta Mikel Lizartza lehiatuko dira, Arizmendi base-rriko belardian, 12:00etan hasita. Ondoren, segalari beteranok erakustaldia eskainiko dute; Leon Albeniz 'Iruntxiberri', Juan Manuel Erasun eta Jose Antonio Matxain arituko dira segan.

Iaz Gabirondo gailendu zen

Iaz, Amasako Arratzain base-rriko sailetan jokatu zen Gipuzkoako Sega Sail Txapelketa. Orduko hartan 19 segunduko alde estuarekin lortu zuen garaipena Julen Gabirondo urnietarrak. Jokin Etxeberria amasarra sailkatu zen bigarren postuan, Mikel Lizartza hirugarren eta Iban Pardo laugarren.



Nahikari Garcia. ATHLETIC

Amaitu da Nahikari Garciaren ibilbidea Athletic Club taldean

Realean hasi eta Real Madriden aritu ostean, urnietarrak Athletic Cluben egin ditu bi denboraldi. Astelehenean eman zuten agurraren berri. Ikustear dago, orain, futbolak nora daraman.



RFEF

Espainiako txapeldun-ordeak

Estatu mailako txirrindularitza txapelketak izan ziren aurreko asteburuan, Granadan. Junior mailako proban bikain aritu ziren euskal ordezkariak, bereziki, Eñaut Urkaregi eta Irati Aranguren. Biak ala biak txapeldun-orde izan ziren. Helmugara lau txirrindulari heldu ziren eta esprintean irabazteko zorian izan zen Andoaingo Txirrindulari Eskolako kidea.

Triatloi Sprint lehiaketa

Aimar Sukuntza bikain aritu zen Lekeitioko XXXII. Triatloi Sprint lehiaketan. 430 triatloiarik hartu zuten parte eta sailkapen orokorrean bederatzigarren iritsi zen Zumetarra atletismo taldeko kidea. Igeriketan 750 m., bizikletan 21 km. eta lasterka 5 km. egin behar izan zituzten kirolariek. Sukuntzak 01:01:27ko denbora egin zuen.



ZUMETARRA



AIURRI

Pelontxuren erakustaldia

Beñat Fernandez Etxeberria "Pelontxu" nazioartean nabarmentzen ari da. San Juan jaietan, azken urteotako joerari jarraipena emanez, erakustaldia egin zuen Nafarroa plazan. Markel Iturain donostiarra, Aner Martin lizartzarra eta Unai Macho hernaniarra aritu ziren andoaindarrarekin batera. Motozale ugari erakarri zuen saioak.

HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIA BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

MENDEURRENA

URNIETA Xoxokako eskola

Eskola zaharraren historia biltzen duen panel bat bistaratuko da, dantza, musika eta bertsoekin osatuko dute ekitaldia.

Uztailak 6, igandea.

11:00, Xoxokako eskola. Goiburu.

ZERBITZUAK

URNIETA Udal pilotalekua

Uztalean hasita, udan udal pilotalekua zabalik izango du. Erabilera librekoa izango da, beraz. *Urnietako pilotalekua.*

Ordutegia: 09:00-21:00.

ANDOAIN Bisitarien Etxea

Leitzaran Bisitarien Etxea zabalik egongo da udan.

Bisitarien Etxea, Otieta.

Ordutegia: 09:30-18:30.

IPUINGIRO

ANDOAIN Memoriaren ibaia

Komiki-liburuaren aurkezpen ekitaldia.

Uztailak 8, asteartea.

19:30, AEK euskaltegiaren ondoan.



Leitzaran kalean jarri dute aingura, Leitzaran ibaiaren bazterrean. AIURRI

ANDOAIN Burdina taldearen ekitaldia Leitzaran ibaiaren ertzean

Egunotan ikusgai dago aingura handi bat, iraganean ainguren industriak Andoain izan zuen garrantzia azpimarratuko duen ikuskizun berezia izango da. Bekoplazan jarrita, ibaiaren bestaldean, parez pare aurki daiteke aingura hori. Burdina taldeak ekitaldia antolatuko du larunbat gauean.

Uztailak 5, larunbata. 22:00, Bekoplaza.

KONTZERTUA

ANDOAIN Barricadaren bertsioak

Barrena taldea zuzenean ariko da.

Uztailak 11, ostirala.

22:30, Karrika.

KALE ANTZERKIA

ANDOAIN Trapu zaharra

"La ultima, ¡Y nos vamos!".

Uztailak 18, ostirala.

19:30, Zumea plaza.

UDA ZINEMA KALEAN

Gru 4: Mi villano favorito

Uztailak 3, osteguna. Goikoplaza. Gaztelaniaz. 19:00.

Sinopsia: Gru, Lucy eta Margo, Edith eta Agnes etxeko neskek familiako kide berri bati ongietorria ematen diote: Gru Junior, bere aitari buruhausteak ematera etorri dela dirudien haurra. Oraingoan, Gruk aurre egin beharko dio bere etsai berriari, Maxime Le Mali, eta honen neska-lagun sofistikatu eta gaiztoari, Valentinari. Horrek familia osoa ihes egitera behartuko du.

Dragoi-jalea

Uztailak 10, osteguna. Etxeberrieta plaza. Euskaraz. 19:00.

Sinopsia: Garai ilunak dira Txina inperialean. Dragoiak, garai batean gizakien lagun eta aliatu jakintsuak izan zirenak, urte luzez jazarriak izan dira eta ziegetan giltzapetuta daude. Mendietako gotorleku urrun batean, neskaxa batek azken dragoiari ihes egiten laguntzen dio, eta harekin bat egiten du abentura zirraragarri batean: altxor preziatuena berreskuratzea.

Kung-Fu panda 4

Uztailak 17, osteguna. Goikoplaza. Gaztelaniaz. 19:00.

Sinopsia: Po, Bakearen Haraneko Maisu Espirituala bihurtuko dena, Dragoi Gerlari berriaren oinordekoa bilatzen ari da, eta bitartean aurkari berri bati egin beharko dio aurre: "Kameleioia" izeneko etsai arriskutsu bati.





Juan Luis Zabala. SUSA



Mattin. OARSOALDEKO HITZA

Leitzararen bailaran kokatzen da "Memoriaren ibaia" komikia

Ipuingiro zikloaren edizio berrian aurkeztu dute Juan Luis Zabala idazleak eta Mattin komikilariak

Erredakzioa ANDOAIN

Maite Frankoren "Zorte txarreko otsoak" saioarekin abiatu zen Ipuingiro zikloa.

Memoriaren ibaia

Uztailak 8.

19:30, Plazaola kalea.

Mattin komikilaria eta Juan Luis Zabala idazlea dira egileak. Honatx, sinopsia: Feminismoan eta ekologian, injustiziaren aurka eta gizarte bidezko eta bizi-garriago baten alde borrokatu dira Eider eta Harkaitz. Ez dute damurik, ez diote ekologista eta feminista izateari utzi, baina militantziaren alde ilunaz ere jabetu dira gaztaroko urteetan aurrera egin ahala. Horretaz hasi dira solasean Andoaindik abiatuta Leitزارango bailaran zehar bizikletan egiten ari diren txangoan, jakin gabe Leitzan kontu horiekin zerikusia duen ezusteko latza jasoko dutela.



Memoriaren ibaia. DENONARTEAN

Kamishi-Jai

Uztailak 22.

18:30, Leizaur parkea.

Japoniatik datorren Kamishi-Jai tradizioa jarraituz, bizikletetan eskenatoki ibiltari moduko bat osatuko dute.

ODOL-EMAILEAK

HITZORDUA

Uztailak 7, astelehena.

URNIETA

Gaztelekua. Orduetgia: 16:30-20:30.

Uztailak 14, astelehena.

ANDOAIN

Osasun Etxea. Orduetgia: 16:30-20:30.

Internet bidez erehartzu daiteke ordua gotatanta.eus webgunean sartuta.

Eguneratu dituzte Andoaingo Hiribusaren prezioak

Ezarri dituzte prezioak Andoaingo hiri barruko autobus zerbitzuan. Uztailaren lehenean hasita, tarifak ondorengoak izango direla jakinarazi du Andoaingo Udalak:

- 0-14 urte: doan.
- Txartel arrunta: 0,30 euro.
- Erretiratuak: 0,10 euro.

Bide batez, abuztuan martxan izango da Hiribusa Andoainen.


ZORION AGURRAK



ANDOAIN

Enaitz Agirre


Uztailaren 2an Enaitz Agirrek urteak bete zituen, ez nolanahikoak: 16 borobil borobillak. Zorionak eta muxuak. Etxekoak.



ANDOAIN

Ur

Uztailaren 10ean 9 urte beteko dituzu, Uri! Ondo ondo pasa zure egunean eta uda osoan. Muxuak! Xune, amatxo, aitabxo eta familiaren partetik.



ANDOAIN

Manex

Mendizabal Ezeiza Manexek uztailaren 7an urteak beteko ditu. Zorionak eta muxu handiak amona Mirenen partetik!

www.aiurri.eus

Sar zaitez "Zorion agurrak" atalean, eta fitxa osa ezazu. Mezua eta argazkia igotzen diren unetik, urtebetetze egunera bitarte, ikusgai izango da webgunean. Ez dadila tamaina handiko argazkia izan. Tamaina editatzerik ezean, zorion-agurra helarazteko erabili ezazu posta elektronikoa.

diseinua@aiurri.eus

Mezua bidali Aiurriko posta elektronikora, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Arantzibia 4-5, behea

Etor zaitez bulegora, Andoainera. Telefono zenbakia: 943 300 732.

MERKATU TXIKIA

ALOKAIRUA

Iruñeko pisu batean bi gela libre daude alokatzeko. UPNaren inguruan. Bi unibertsitateko ikasle bila gabeak, neskak eta euskaldunak. Bestela, ez molestatu, arren. Interesatuak deitu 665 719 827 telefonora.

HEZIKETA

Zure tikiarekin harreman hobea izan nahi duzu? Batzuetan guraso izatea nekagarria da: eztabaidak, ez ulertzea, errudun sentitzea... Eguneroko egoera errealetarako aholku sinpleak eta praktikoak jasoko dituzu email bidez, dohainik. Lagundu zure haurrari (eta zeure buruari) lasaiago bizitzen. Eman izena hemen:

www.angiru.es/angiru-tribua

ESKELA

Juan LOPEZ DE MUNAIN ANSA

Andoainen hil zen
2025eko ekainaren 29an, 76 urte zituela.

Andoaingo Udaleko zinegotzia 1979-1983 legegintzaldian

ANDOAINGO UDALA


Andoainen, 2025eko ekainaren 30ean

ESKELAK JARTZEKO: 943 300 732
edo publizitatea@aiurri.eus

Eskelak Aiurri:
aukera eraginkorra

andoaINDARRA
euskaraz

***Mendira,
hondartzara,
festara...***



***Uda honetan ere
zurekin eramango gaituzu***



Okm:
*batzen gaituen
distantzia*